

## ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

**IKERNE GIMÉNEZ**  
**LAS OBRAS QUE NUNCA HICE**  
**INOIZ EGIN EZ DITUDAN ANTZEZLANAK**

Martxoak 3 – Apirilak 7  
Lugaritz Kultur Etxea  
Astelehenetik ostiralera: 16:00 – 20:30

**Ikerne Giménez Guezuraga (Bilbo, 1979)**

Ikerne Giménezek lan-ibilbide oparoa egin du jantzi eta osagarri eszenikoen esparruan. Orain arte, zuzendari askorekin lan egin du Centro Dramático Nacional, Teatro Español edo Compañía Nacional de Teatro Clásico erakundeen ekoizpenetan, publiko zein pribatuetan.

Lugaritzeko erakusketan, argia ikusi ez zuten zenbait ideia jarri ditu ikusgai diseinatzaileak: inoiz proiekturen baten parte izandako baina gero gauzatu gabe gelditutako eszenografiak, artistak irudikatu baina eszenatokia inoiz hartu ez zuten pertsonaiak; arte eszenikoetarako sortutako ideiak, zirriborro, marrazki eta irudietan jasota gelditu direnak.

Sari ugari jaso ditu, besteak beste: **AD Eren Adriá Gual Figurinismo Saria 2009** eta **Max Saria 2010 Figurinista Onenari**, sari biak *Avaricia, lujuria y muerte* obragatik; **Max Saria 2007 Konpainia Errebelazioari**, *Desde lo invisible* obran egindako lan plastiogatik, eta **Fetén saria 2016 Eszenografia Onenari**, *El circo de la luna* obragatik. Haren azken eszenografia-lanak izan dira: Donostia 2016 Hiriburatzaren programazioaren barnean Fernando Bernuések eta Iñaki Rikartek zuzendutako *Uda gau bateko ametsa* obra, eta Mathias Simonsen *El Circo de la luna* obra Belgikako Le Atelier de la Coline eta Teatro Paraísoarako.

Gaur egun irakasle jardun du ECAMen (Madrilgo Zinema Eskola), eta Kukai Dantza taldeak Madrilgo Reina Sofía Museoan egingo duen hurrengo ikuskizunerako jantzi eta osagarri eszenikoak diseinatzeko ari da.